



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2026ko ekainaren 5a

61. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-26/MOC-00095. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua eta Nafarroako Parlamentua premia-tzen baitira berehala indargabetu dezaten 23/2022 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, Nafarroako Errepideen Erabilera Kanonari buruzkoa. Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkeztu du (3. or.).
- 11-26/MOC-00096. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita kenkari fiskal espezifiko-ak jaso ditzan PFEZean nahiz bestelako foru-tributuetan pertsona zeliakoentzat nahiz gaixotasun zeliakoaren diagnostikoa duen kide bat edo gehiago daukaten familientzat, glutenik gabeko elikadurak dakarren gainkos-tua konpentsatzeko. Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkeztu du (4. or.).
- 11-26/MOC-00097. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita epidermolisi builoso-a duten pertsonentzako arreta-programa integral bat garatu dezan, honako hauek jasoko dituen: etxe-ko laguntza, osasun- eta hezkuntza-koordinazioa, profesionalentzako eta familientzako formakuntza espezifi-koa eta gaixotasun arraroei lotutako elkar-teekiko lankidetzeta eta ikerkuntzarako ildoak bultzatzea. Nafar-roako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkeztu du (6. or.).
- 11-26/MOC-00063. Mozioa, zeinaren bidez Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premia-tzen baita matchfunding-eko deialdi pilotu bat sor dezan 2027an. Kultura, Kirol eta Turismo Batzordean izapidetzea (7. or.).
- 11-26/MOC-00072. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu-ko Landa Garapene-ko eta Ingurumeneko Departamentua premia-tzen baita proiektu pilotu bat garatu dezan Iruñeko eta Tuterako udal-merkatuetan supermerkatu publiko bana jartzeko. Landa Garapene-ko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetzea (8. or.).
- 11-26/MOC-00079. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita behar diren erregelamenduzko lege-neurriak edo neurri exekutiboak bultza ditzan luzamendu integral bat ezartzeko gure lurraldean biometanizazio- edo biogas-plantak instalatzeko dagokionez, arau-ekosistema bermatzaile bat izan arte. Landa Garapene-ko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetzea (8. or.).
- 11-26/MOC-00069. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita energia elektrikoa sortzeko autokontsumo kolektiboa gauzatzeko izapidetzearen gaineko neurriak har ditzan. Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Batzordeak onetsi du (9. or.).

- 11-26/MOC-00084. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita, Nafarroako Nekazaritza Kontseiluarekin eta nekazaritzako erakunde profesional adierazgarriekin koordinatuta, Nafarroako lehen sektoreari laguntzeko benetako aparteko plan bat egin dezan. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak onetsi du (9. or.).
- 11-26/DEC-00029. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere min eta atsekaberik handiena adierazten baitu Foruzaingoko bost kide trafiko-istripu batean hil direla eta. Eledunen Batzarrak onetsi du (10. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- 11-26/PES-00164. Galdera, euskara biziberritzeko eta sustatzeko hizkuntza politiken planifikazioan aditutitua saritzeari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (11. or.).
- 11-26/PES-00165. Galdera, Bai proiektuari buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (12. or.).
- 11-26/PES-00166. Galdera, Israelgo enpresekiko kontratuei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (12. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-26/OFS-00001. Erabakia, 2026ko uztailaren 21a gaitzeko, Kultura, Kirol eta Turismo Batzordearen 11-26/VST-00014 bisita egin ahal izan dadin (14. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-26/MOC-00095. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua eta Nafarroako Parlamentua premiatzen baitira berehala indargabetu dezaten 23/2022 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, Nafarroako Errepideen Erabilera Kanonari buruzkoa

NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua eta Nafarroako Parlamentua premiatzen baitira berehala indargabetu dezaten 23/2022 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, Nafarroako Errepideen Erabilera Kanonari buruzkoa.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra (PPN) talde parlamentarioaren eledun den Javier García Jiménez jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu dadin eta Lurralde Kohesiorako Batzordean egin dakion jarraipena:

Zioen azalpena

Nafarroako errepideetarako erabilera-kanona arautzeari buruzko uztailaren 1eko 23/2022 Foru Legea onetsi zenean, ezkutuko bidesarien sistema bat ezarri zen Foru Komunitateko bide jakin batzuetan, eta horrek gero eta kezka handiagoa sortu zuen gizartean, ekonomian eta lurraldean.

Araudi hori indarrean sartu zenetik, garraiolariak, autonomoak, enpresek, toki-entitateak eta herritarrek, oro har, kritika ugari egin dizkiote araudi horri, beren eguneroko jarduera ekonomikoa garatzeko errepideko garraioaren mende daudenak bereziki zigortzen dituelako. Neurriak logistika- eta garraio-kostuak areagotzen ditu, Nafarroako enpresen lehiakortasunari zuzenean eraginez eta herritarren bizi-kostua garestituz.

Era berean, sistema hori kudeatzeko Nafarbide enpresa publikoa sortzeak eta mantentzeak kostu ekonomiko handia ekarri die Nafarroako diru-kutxa publikoei.

Administrazio-, teknologia-, eragiketa- eta langile-egituratik eratorritako gastuek egungo testuinguru ekonomiko eta sozialean nekez justifika daitekeen karga ekonomikoa sortzen dute, bereziki lehentasun premiazkoagoak daudenean osasunaren, hezkuntzaren, mendekotasunaren edo produkzio-sareari laguntzearen arloan.

Gainera, kanona ezartzeak ez du adostasun sozial handirik izan, ezta ukitutako sektoreen ahobatezko babesik ere, eta horrek segurtasunik eza, arbuioa eta benetako bilketa- eta kudeaketa-eragin-kortasunari buruzko zalantzak eragin ditu.

Sozietate horri enkargatutako funtzio horiek formula alternatibo ekonomikoagoekin egin litezke, bai foru-administrazioaren beraren kudeaketa zuzenaren bidez, bai zerbitzuak ematearen bidez lehendik dauden enpresa publikoekin, dagoeneko sortuta dauden sozietateekin edo kudeaketa puntualak kanporatuz. Horrela, foru diru-kutxen alferrikako gastuak saihestuko lirateke.

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da 23/2022 Foru Legea berehala indargabetzea eta hura aplikatzeko sortutako enpresa publikoa desegitea, beharrezkoak ez diren administrazio-egiturak ezabatuz

eta Nafarroako herritar eta enpresei karga ekonomiko handiagoak helarazten jarraitzea saihestuz.

Erabaki-proposamena:

1. Nafarroako Gobernua eta Nafarroako Parlamentua premiatzen dira berehala indargabetu dezaten 23/2022 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, Nafarroako errepideetarako erabilera-kanonari buruzkoa.

2. Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafar-bide enpresa publikoa ixten eta desegiten has dadin, kanona kudeatzeko sortutako egitura ezabatuz eta sozialki eta ekonomikoki arbuizten den eta Nafarroarentzat kaltegarria den sistema batera baliabide publikoak bideratzen jarraitzea saihestuz.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 25ean

Eleduna: Javier García Jiménez

11-26/MOC-00096. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kenkari fiskal espezifikoak jaso ditzan PFEZean nahiz bestelako foru-tributuetan pertsona zeliakoentzat nahiz gaixotasun zeliakoaren diagnostikoa duen kide bat edo gehiago daukaten familientzat, glutenik gabeko elikadurak dakarren gainkostua konpentsatzeko

NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kenkari fiskal espezifikoak jaso ditzan PFEZean nahiz bestelako foru-tributuetan pertsona zeliakoentzat nahiz gaixotasun zeliakoaren diagnostikoa duen kide bat edo gehiago daukaten familientzat, glutenik gabeko elikadurak dakarren gainkostua konpentsatzeko.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra (PPN) talde parlamentarioaren eledun den Javier García Jiménez jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu dadin eta Osasun Batzordean egin dakion jarraipena:

Zioen azalpena

Zeliakia gaixotasun autoimmune kronikoa da, eta hori pairatzen dutenek glutenik gabeko dieta zorrotza egin behar dute etengabe, osasuna zaintzeko eta konplikazio mediko larriak saihesteko tratamendu eraginkor bakarra baita.

Zeliakoek eta gaixotasun zeliakoa diagnostikatu zaien kide bat edo batzuk dituzten familiek gainkostu ekonomiko handia jasaten dute glutenik gabeko produktu espezifikoak erostearen ondorioz; izan ere, produktu horien prezioak ohiko produktuenak baino nabarmen handiagoak izaten jarraitzen dute. Gastu horrek ez dio hautu pertsonal bati erantzuten, baizik eta beharizan mediko iraunkor eta saihestezin bati.

Aspalditik, zeliakoen elkarteek laguntza ekonomiko eta fiskalerako benetako neurri eraginkorrak eskatzen dizkiete administrazio publikoei, glutenik gabeko dieta mantentzeak dakarren kostu handia konpentsatu ahal izateko, zati batean behintzat. Erreibindikazio historiko horiek agerian utzi dute milaka pertsonak eta familiak pairatzen duten desberdintasun-egoera, osasuna bermatzeko aparteko gastu bat egitera behartuta baitaude.

Hala ere, Nafarroako Gobernuak urte askoan alde batera utzi du biztanleriaren zati handi hori, zeliakiaren eragin ekonomikoa konpentsatzen lagunduko duten neurri egonkor, nahiko eta benetan eraginkorrak bultzatu gabe.

Nafarroan, orain arte hartutako neurriak ez dira nahikoak izan, argi eta garbi. Horren erakusgarri izan zen zeliakoaren elikadura-gastuetarako dirulaguntzak emateko 2017ko deialdia, Nafarroako Gobernuak bultzatua. Laguntza horiek nabarmen kritikatu zituzten kaltetuek eta kolektiboko elkarteek zenbateko eskasa zutelako eta glutenik gabeko dieta zorrotzari eusteak dakarren kostu handian zuten benetako inpaktua eskasa zelako. Irtenbide eraginkor bat eskaini beharrean, deialdi hark agerian utzi zuen Nafarroako zeliakoaren eta haien familien benetako beharrekin konprometitutako politika egonkor eta nahikorik ez zegoela.

Nafarroako Foru Komunitateak eskumen osoak ditu tributu eta zerga arloan, bere foru-araubidetik eta Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikotik eratorriak, eta horrek aukera ematen dio PFEZaren eta beste foru-tributu batzuen barruan kenkari eta onura fiskal propioak ezartzeko. Nafarroak dagoneko garatu ditu historian zehar hainbat gizarte-, familia- eta osasun-egoerari egokitutako zerga-politika espezifikokoak, eta, beraz, gaitasun arautzaile osoa dago zeliakoei laguntzeko neurriak bultzatzeko.

Gainera, beste autonomia-erkidego eta Europako beste lurralde batzuk laguntza ekonomiko edo fiskaleko neurriak ezartzen hasi dira glutenik gabeko elikaduraren gainkostua konpentsatzeko, hartara erakutsita badaudela norabide horretan aurrera egiteko aurrekariak eta tresna bideragarriak.

Kenkari fiskal espezifikokoak ezartzea justizia sozialeko, ekitatezko eta laguntza sanitarioko neurri bat izanen litzateke, Nafarroako pertsona eta familia askori egunero eragiten dien karga ekonomikoa arintzen lagunduko lukeena.

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da Nafarroako instituzioek Foru Komunitatearen berezko zerga-eskumenak erabiltzea zeliakoei eta gaixotasun horrek eragindako kideak dituzten familiei laguntzeko neurri egonkor, nahiko eta eraginkorrak ezartzeko.

Erabaki-proposamena:

1. Nafarroako Gobernuak premiatzen da kenkari fiskal espezifikokoak jaso ditzan PFEZean nahiz bestelako foru-tributuetan pertsona zeliakoentzat nahiz gaixotasun zeliakoaren diagnostikoa duen kide bat edo gehiago daukaten familientzat, glutenik gabeko elikadurak dakarren gainkostua konpentsatzeko.

2. Nafarroako Gobernuak premiatzen da, bere foru-eskumenen esparruan, neurri fiskal eta ekonomiko egonkor eta nahikoak gara ditzan pertsona zeliakoei eta ukitutako familiei laguntzeko, kolektiboko elkartearen erreibindikazio historikoei erantzunez eta beste autonomia-erkidego eta Europako lurralde batzuetan jada aplikatutako ekimenak erreferentziazat hartuta.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 27an

Eleduna: Javier García Jiménez

11-26/MOC-00097. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita epidermolisi bullosoa duten pertsonentzako arreta-programa integral bat garatu dezan, honako hauek jasoko dituen: etxeko laguntza, osasun- eta hezkuntza-koordinazioa, profesionalentzako eta familientzako formakuntza espezifikoa eta gaixotasun arraroei lotutako elkar-tekiko lankidetzak eta ikerkuntzarako ildoak bultzatzea

NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita epidermolisi bullosoa duten pertsonentzako arreta-programa integral bat garatu dezan, honako hauek jasoko dituen: etxeko laguntza, osasun- eta hezkuntza-koordinazioa, profesionalentzako eta familientzako formakuntza espezifikoa eta gaixotasun arraroei lotutako elkar-tekiko lankidetzak eta ikerkuntzarako ildoak bultzatzea.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra (PPN) talde parlamentarioaren eledun den Javier García Jiménez jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu dadin eta Osasun Batzordean egin dakion jarraipena:

Zioen azalpena

Epidermolisi bullosoa, "tximeleta-azala" izenez ezagutzen dena, gaixotasun arraroa, genetiko eta oso ezgaitzailea da. Larruazalaren eta mukosen hauskortasun izugarria du ezaugarri, eta zauriak, babak eta lesio larriak eragiten ditu, marruskadura-rik edo traumatismorik txikienaren ondorioz.

Gaixotasun hori duten pertsonen eguneroko zaintza oso konplexuak, etengabeko tratamen-

duak, osasun-material espezializatua eta laguntza fisiko, emozional eta ekonomiko handia behar dituzte, bai haien bizitza, bai haien familientzat. Gaixotasun horren gogortasunak eragin zuzena du pairatzen dutenen eta haien familia-ingurunearen bizi-kalitatean.

Nafarroako Gobernuak berak emandako datuen arabera, gaur egun Nafarroan 13 pertsonari diagnostikatu zaie epidermolisi bullosoa, eta horietatik 7 adingabeak dira. Era berean, Hezkuntza Departamentuak aitortu du gaixotasun hori duten 4 ikasle daudela eskolatuta Nafarroako ikastetxeetan.

Nafarroako Gobernuaren txostenak ere berariaz aitortzen du Nafarroan ez dagoela patologia horretarako laguntza berariazkorik, ez eta kaltetutako familientzako laguntza ekonomikoko programa espezifikorik ere. Erakundeek laguntzarik ez dagoenez, familia askok bakarrik hartu behar dituzte beren gain apositu, bendaje, tratamendu, joan-etorri, zainketa espezializatu eta inguruneen egokitzapenetatik eratorritako kostu ekonomiko oso handiak.

Era berean, Nafarroako Gobernuak berak aitortzen du gaur egun ez dagoela epidermolisi bullosoa duten pazienteei etxean laguntzeko programa espezifikorik.

Nafarroak Madrilgo La Paz Ospitaleko CSURera bideratzen ditu pazienteak, eta erreferentzia-zko zentrotik agindutako tratamenduak finantzatzen ditu. Hala ere, egia esan, familia askok zailtasun handiak izaten jarraitzen dute, gaixotasun arraro horren ondorioz.

Gainera, Nafarroako Gobernuak aitortzen du gaur egun ez dagoela patologia horri lotutako ikerketa-proiekturik Foru Komunitateak finantzatuta.

Gainera, Andaluzia izan da Vyjuvek sendagai aitzindaria (epidermolisi bullosoa edo "tximeleta-azala" tratatzeko terapia geniko topikoa) finantzatu eta aplikatzen duen Espainiako lehen autonomia-erkidegoa. Abangoardiako tratamendu horrek zauri kronikoak ixten eta orbaintzen laguntzen du, eta nabarmen hobetzen du kaltetutako pertsonen bizi-

kalitatea. Autonomia-erkidego horretan 50 paziente ingururi egin die mesede.

Andaluziak hartutako erabakiak erakusten du autonomia-erkidegoek erabakitasunez jardun dezaketela gaixotasun arraroetarako tratamendu berritzaileak eskura jartzen direla bermatzeko, pazienteen osasunari eta duintasunari lehentasuna emanez.

Gaixotasun arraroek ezin dute ikusezin izaten jarraitu administrazio publikoentzat. Nafarroako arreta integral, koordinatu eta gizatiar baterantz jo behar du, epidermolisi builosoak jotako pertsoneri eta haien familiei osasun-, gizarte-, hezkuntza- eta ekonomia-laguntza nahikoa bermatzeko.

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da neurri zehatzak bultzatzea, Nafarroan gaixotasun hori dutenen bizi-kalitatea, arreta eta laguntza instituzionala hobetzeko.

Erabaki-proposamena:

1. Nafarroako Gobernua premiatzen da epidermolisi builosoak duten pertsonentzako arreta-programa integral bat garatu dezan, honako hauek jasoko dituena: etxeko laguntza, osasun- eta hezkuntza-koordinazioa, profesionalentzako eta familientzako formakuntza espezifikoa eta gaixotasun arraroerik lotutako elkarrekin lankidetzak eta ikerkuntzarako ildoak bultzatzea.

2. Nafarroako Gobernua eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua premiatzen dira epidermolisi builosoak jotako pertsonen tratamendu berritzaileak eskuratzen dituztela eta horiek finantzatzen direla bermatzera, terapia aurreratuak barne, hala nola Vyjuvek, "tximeleta-azala" duten pazienteentzako tratamendu aitzindaria.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 27an

Eleduna: Javier García Jiménez

11-26/MOC-00063. Mozioa, zeinaren bidez Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premiatzen baita *matchfunding*-eko deialdi pilotu bat sor dezan 2027an

KULTURA, KIROL ETA TURISMO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 1ean egindako bilkuran, eta Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Kultura, Kirol eta Turismo Batzordean izapidetu dadin Daniel López Córdoba jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premiatzen baita

matchfunding-eko deialdi pilotu bat sor dezan 2027an. Mozioa 2026ko apirilaren 9ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/MOC-00072. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua premiatzen baita proiektu pilotu bat garatu dezan Iruñeko eta Tuterako udal-merkatuetan supermerkatu publiko bana jartzeko

LANDA GARAPENeko ETA INGURUMENeko BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 1ean egindako bilkuran, eta Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetu dadin Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua premiatzen baita proiektu pilotu bat garatu dezan Iruñeko eta Tuterako

ko udal-merkatuetan supermerkatu publiko bana jartzeko. Mozioa 2026ko apirilaren 24ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/MOC-00079. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita behar diren erregelamenduzko lege-neurriak edo neurri exekutiboak bultzatzen dituzan luzamendu integral bat ezartze aldera gure lurraldean biometanizazio- edo biogas-plantak instalatzeari dagokionez, arau-ekosistema bermatzaile bat izan arte

LANDA GARAPENeko ETA INGURUMENeko BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 1ean egindako bilkuran, eta Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetu dadin Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita behar diren erregelamenduzko lege-neurriak edo neurri exekutiboak bultzatzen

luzamendu integral bat ezartze aldera gure lurraldean biometanizazio- edo biogas-plantak instalatzeari dagokionez, arau-ekosistema bermatzaile bat izan arte. Mozioa 2026ko maiatzaren 8ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/MOC-00069. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita energia elektrikoa sortzeko autokontsumo kolektiboa gauzatzeko izapidetzearen gaineko neurriak har ditzan

INDUSTRIAKO ETA ENPRESEN TRANTSIZIO EKOLOGIKO ETA DIGITALERAKO BATZORDEAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Batzordeak 2026ko ekainaren 3an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita energia elektrikoa sortzeko autokontsumo kolektiboa gauzatzeko izapidetzearen gaineko neurriak har ditzan. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Azter ditzan energia banatzen eta merkaturatzen duten enpresek egindako administrazio-prozedura independenteak nahiz partekatuak, eta txosten bat egin dezan, detektatzeko botila-lepoak eta autokontsumo indibidual edo kolektiboak abian jartzea eta kudeatzea atzeratzen duten arazoak.

2. Txosten hori igor diezaien eta proposamen zehatz bat egin diezaien IDAERI eta MLBNri, ego-

era hori zuzentzeko beharrezkoak diren aldaketa tekniko eta legalak sustatuta, prozesu horretan parte hartzen duten erakunde guztientzat prozedura arin eta gardena garatzeko:

– Autokontsumo kolektibo bat legeztatzeko eta/edo banaketa-koefizienteak aldatzeko interesa duten pertsonak/erakundeak.

– Administrazio publikoa.

– Energia banatzen eta merkaturatzen duten enpresak.

3. Txosten hori bidal diezaion Nafarroan eratutako Autokontsumoko Mahaiari, idatziz zehatz ditzan jarraitu beharreko prozeduraren fase guztiak, bai autokontsumorako instalazio indibidual edo kolektibo bat martxan jartzeko, bai banaketa-akordioak aldatzeko”.

Iruñean, 2026ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/MOC-00084. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita, Nafarroako Nekazaritza Kontseiluarekin eta nekazaritzako erakunde profesional adierazgarriekin koordinatuta, Nafarroako lehen sektoreari laguntzeko benetako aparteko plan bat egin dezan

LANDA GARAPENEN ETA INGURUMENEN BATZORDEAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak 2026ko ekainaren 2an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita, Nafarroako Nekazaritza Kontseiluarekin eta nekazaritzako erakunde pro-

fesional adierazgarriekin koordinatuta, Nafarroako lehen sektoreari laguntzeko benetako aparteko plan bat egin dezan. Erabakia eragin zuen mozioa Leticia San Martín Rodríguez andreak aurkeztu zuen, eta 2026ko maiatzaren 22ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Hona testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Nafarroako Nekazaritza Kontseiluarekin eta nekazaritzako erakunde profesional adierazgarriekin koordinatuta, Nafarroako lehen sektoreari laguntzeko benetako aparteko plan bat egin dezan, Nafarroan dauden ekoizpen eta ustiategien errealitate espezifikora egokitua.

2. Plan horrek laguntza modulatuak eta proportzionalak ezarri beharko ditu, irizpide objektiboen arabera, hala nola energia-kontsumoa, azalera, ekoizpen-orientazioa, ustiapen-bolumena, abeltzaintza-unitateen kopurua edo azpisektore bakoitzak jasandako benetako inpaktua, eta saihesti beharko ditu egoera bidegabeak edo ez-eraginkorrak sor ditzaketen banaketa linealeko ereduak".

Iruñean, 2026ko ekainaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/DEC-00029. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere min eta atsekaberik handiena adierazten baitu Foruzaingoko bost kide trafiko-istripu batean hil direla eta

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2026ko ekainaren 4an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak min eta atsekaberik handiena adierazten du gaur Foruzaingoko bost kideren heriotzagatik, zeinek trafiko-istripua izan baitute Elgoibarren, Ertzaintzaren lurretako basean (Bizkaia) egitera zihoazen lan-topaketa baterako bidean.

2. Nafarroako Parlamentuak dolumin beroenak eta bere maitasuna bidaltzen dizkie senideei, lagunei eta Foruzaingoko langile guztiei. Zalantzarik gabe, gaurkoa egun tristea da Foruzaingoarentzat eta Nafarroa osoarentzat.

3. Nafarroako Parlamentuak aitortpena, errespetua eta esker-ona erakusten die hildako bost zerbitzari publikoei haien konpromiso eta zerbitzibokazioagatik.

4. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Nafarroako Gobernuak eta Foruzaingoak antolatutako ekitaldi instituzionalekin, zeinak eginen baitira hildako bost foruzainei agurra emateko, haien lana eta zerbitzu publikoan izandako dedikazioa omentze aldera.

5. Nafarroako Parlamentuak minutu bateko isilunea eginen du Osoko Bilkuraren hasieran, hildako agenteak omentzeko".

Iruñean, 2026ko ekainaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-26/PES-00164. Galdera, euskara biziberritzeko eta sustatzeko hizkuntza politiken planifikazioan aditu-titulua saritzeari buruzkoa*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, euskara biziberritzeko eta sustatzeko hizkuntza politiken planifikazioan aditu-titulua saritzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Par-

lamentuko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

2026-2027ko ikasturtean unibertsitate-eskaintzan Euskara biziberritzeko eta sustatzeko hizkuntza-plangintzan aditua berezko titulua sartzeko NUPekin egindako hitzarmenaren berri emateko prentsa-oharrean honako hau adierazten da: "Nafarroan erroldatutako ikasleek hobari bat izanen dute beren matrikulan".

– Zergatik aplikatuko da (hobaria)?

– Zertan datza hobaria?

– Ohikoa al da hobari hori NUPen ematen diren beste titulu batzuetan?

– Zenbatetan eta zein titulutan aplikatzen da hobari hori?

– Zenbat ikasle izan dira orain arte hobari horren onuradun?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 25ean

Foru-parlamentaria: Cristina López Mañero

11-26/PES-00165. Galdera, Bai proiektuari buruzkoa*MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, Bai proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta atxiki gabeko parlamentari María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

BAI proiektua Nafarroako garapen teknologiko, industrial eta ekonomikorako ekimen estrategiko gisa aurkeztu da, berrikuntzari, digitalizazioari eta balio erantsi handiko enpresa-jarduera erakartzeari lotutako eremuetan Foru Komunitateak duen posizioa indartzeko helburuarekin.

Bereziki garrantzitsua da jakitea zein adierazlek ahalbidetuko duten hasieran planteatutako helburuen betetze-maila baloratzea, bai eta egindako inbertsio publikoaren benetako itzulkina baloratzea ere.

Hori dela-eta, honako galdera hauek aurkezten ditut:

1. Zein adierazle zehatz erabiliko ditu Gobernuak proiektuaren arrakasta neurtzeko?

2. Zer helburu daude arlo hauetan: enpresalankidetzak, inbertsio pribatua erakartzea, patenteak, industria-proiektuak eta enplegua sortzea?

3. Nola ebaluatuko da inbertsio horren itzulkin ekonomikoa eta teknologikoa?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 26an

Foru-parlamentaria: María Teresa Nosti Izquierdo

11-26/PES-00166. Galdera, Israelgo enpresekiko kontratuei buruzkoa*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Israelgo enpresekiko kontratuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentuari egindako honako galdera hau aurkezten di Mahaiari, idatziz erantzun dakion:

1. 2014 eta 2026 artean, zer kontratu (laguntzakoak, material-hornidurakoak edo bestelakoak) sinatu ditu Departamentuak edo Foruzaingoak Israelgo kapitalaren mendeko edo Israelgo estatu genozidaren mendeko enpresa pribatu edo publikoekin?

2. Kontraturen bat sinatu izan balitz, zein izan da jarraitu den kontratazio-prozedura, zein izan zen kontratazio-organoa eta guztira ordaindutako zenbatekoa, BEZa barne?

3. Zehazki,

- Sinatu al da softwarez hornitzeko kontraturik S.R.M T.E.S Investments Ltd enpresarekin?
- Sinatu al da softwarez hornitzeko kontraturik Check Point Software Technologies enpresarekin?
- Sinatu al da softwarez hornitzeko kontraturik Thales S21Sec enpresarekin?

– Sinatu al da softwarez hornitzeko kontraturik TRC BAT enpresarekin?

– Sinatu al da softwarez hornitzeko kontraturik Guardian Defense & Homeland Security enpresarekin?

4. Departamentuak kontratatuta al dauka Check Point edo CyberArk aplikazioen softwarea?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 28an

Foru-parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-26/OFS-00001. Erabakia, 2026ko uztailaren 21a gaitzeko, Kultura, Kirol eta Turismo Batzordearen 11-26/VST-00014 bisita egin ahal izan dadin

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 1ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrarekin bat etorriz, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua-ren 82. artikularekin bat, aurtengo uztailaren 21a gaitzea, Mañerun dagoen Bargotako aztarnategi arkeologikora bisitan joan ahal izateko, Nafarroako Gazteriaren Institutuak eskatu duen moduan.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2026ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias
